


**VILLA DEL NIÑO JESÚS**  
D MAILA

**JOSE ELOSEGI ALKATEAREN HIRIBIDEA 271**



Luis Elizalde, 1911

**Deskribapena**

Etxea zeharo eraldatuta dago, eta ez du gorde neotudor bilbaduraren arkitektura-irudiari jarraikiz bere garaian eduki zituen dorretxoaren eta estalki maldadunen inolako ezaugarriarik. Mantendu duen gauza bakarra bi solairuko behe atala da, harri hormazko fatxadaz hornitua, nahiz geroago erantsitako elementuak ere badauzkan.

**D mailako babes erregimen espezifiko**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: bigarren solairuko jasodura eta mantsarda. jatorrizko proiektuari erantsitako atalak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: basamentu, beheko solairu eta lehen solairuko harrizko errematea.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
- 4.- Nahitazko lehengoratzak: ez.